



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gast
Udala

MARTIN TTIPIA



Sozialistak

ehbildu
Gasteiz

GASTEIZKO KALE EDO ENPARANTZA BATI MARTIN TTIPIA IZENA JARTZEKO MARTIN TTIPIA ELKARTE KULTURALAK AURKEZTEN DUEN MOZIOA

Gasteiz 2014.10.10

Martin Ttipia Gasteizko *"tenentea"* (hots, buruzagia edo arduraduna) zen 1199-ko udaberria amaitzean zela, Alfonso VIII.-ak Gaztelako erregeak, Zadorra ibarrean gora joan eta gero, Gasteiz setiatu zuenean. Gasteiztarrek, Martin Ttipia tenentea buru zutelarik, eutsi zioten bederatzi hilabeteko setioari, erregeak berak, Antso VII.-ak "Azkarrak" alegia, 1194-an bere aita Antso VI.-a "Jakituna"-ri jarraitu ziona, amore emateko baimena eman zien arte, laguntzerik ez zuen eta.

Hainbat kontuen gainera, ataka latz horretan Martin Ttipia tenentearen, eta garaiko gasteiztarren, jarduera ausarta goraiatu behar dugu, ezinbestean: gure aburuz, Vitoria-Gasteizko oroimen istorikoan aparteko tokia merezi du. bederatzi hilabetez erakutsitako irmotasunak, Hiriarekiko eta Nafarroako Erresumarekiko paregabeko leialtasuna adierazten du, *"bere biztanle naturalen fideltasun egiaztatua dela eta"*, ondoren azalduko dugun bezala. Gasteiztarrek haien nafartasunari eusteko eginiko esfortzu itzela gailendu behar dugu, derrigorrez.

Vitoria-Gasteiz (aspaldiko Nova Victoria, aintzinako Gastehiz) Hiriaren bilakaerari eragin dion beste hainbat gertaera Hiriaren ingurunearen parte den bezalaxe, hau ere geure hiritar ikuspegian (eta, bide batez, gure oroimen istorikoan) txertatu beharra dagoela uste dugu. Izan ere, gure ibilbide istorikoaren mugarri erabakiorra da, ia ezezaguna bazaigu ere, eta hura barik ezin liteke gure oraina ulertu.

Pertsonai ausart honen izenari heldu dion elkarte honetatik, Martin Ttipia Kultur Elkartetik alegia, harekin, eta Hiri defendatu zuten lagunekin, Vitoria-Gasteiz zorduna delakoan gaude. Hau dela eta, honenbestez bere oroimena omentzeko lekurik hautatzea proposatzen diogu Hiriko Udaletxeari, aspaldiko "Villa Suso"-n –Nova Victoria izeneko nafar hiribildua, alegia-, hiribilduaren tenentea izan zen Martin Ttipia oroitzuz. Idatzi honetako izenpetzaileen ustez, udal-batzar osoak, kokapen politiko ezberdinak alboratuta, Hiriaren istorian hain erabakiorrak izandako gertakizunekin (izan ere, haien ondorioak gaurdaino iritsi dira) lotutako pertsonai honen oroimen istorikoaren berreskurapenarekin bat egin beharko luke.

Hau dela eta, Gasteizko Udalaren Osoko Bilkurak eztabaidatu eta berrestu dezan, honako mozioa proposatzen du Martin Ttipia elkarte kulturalak:

1.- Goiuriko eremua lehenetsiz, Gasteizko Alde Zaharreko kale edo enparantza bat Martin Ttipia izendatzea.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gast
Udala

MARTIN TTIPIA

EAJ PNV GASTEIZ

Sozialistak

ehbildu
Gasteiz

MOCIÓN PRESENTADA POR LA ASOCIACIÓN CULTURAL MARTIN TTIPIA PARA DAR EL NOMBRE DE MARTIN TTIPIA A UNA CALLE O PLAZA DE VITORIA-GASTEIZ

Gasteiz 10.10.2014

Martin Ttipia era el tenente de Vitoria a finales de la primavera de 1199, cuando el rey de Castilla, Alfonso VIII, remontando el valle del Zadorra, puso sitio a Vitoria. Las y los vitorianos, dirigidos por Ttipia, resistieron el asedio durante nueve meses, hasta que el propio rey, Sancho VII el Fuerte, que había sucedido en 1194 a su padre, Sancho VI, ante la imposibilidad de auxiliarles, les permitió capitular.

Es obligado destacar, al margen de otras cuestiones, el heroico papel desempeñado en aquellas terribles circunstancias por el tenente Martín Ttipia y por todos los vitorianos y vitorianas de la época, que consideramos es merecedor de ocupar un lugar destacado en la memoria histórica de Vitoria-Gasteiz. Su resistencia durante nueve meses, supone una impresionante demostración de lealtad hacia la Ciudad y su pertenencia al Reino de Navarra "*por fidelidad probada de sus moradores naturales*".

Así como otros acontecimientos históricos que han marcado el devenir de la Ciudad de Vitoria-Gasteiz (antes Nova Victoria, antes Gastehiz) forman parte del paisaje de la Ciudad, creemos necesario insertar en nuestro paisaje urbano (y, de paso, en nuestra memoria histórica) la referencia a un acontecimiento, decisivo pero poco conocido, de nuestro devenir, sin el cual no se podría entender nuestra realidad actual.

Desde la asociación que lleva el nombre de aquel heroico personaje, Martin Ttipia Kultur Elkarte, consideramos que Vitoria-Gasteiz está en deuda con él y con quienes defendieron la Ciudad, por lo que proponemos al Ayuntamiento de la Ciudad la dedicatoria a su memoria de algún entorno en la antigua Villa Suso -la villa navarra de Nova Victoria- rescatando del olvido la figura de quien fuera tenente de la misma, Martin Ttipia. Los firmantes de este escrito creemos que la corporación en pleno, por encima de las diversas afiliaciones políticas, debería posicionarse a favor de la recuperación de la memoria histórica de una persona ligada a decisivos acontecimientos de la historia de la Ciudad, cuyas consecuencias llegan hasta nuestros días.

Por todo ello, la asociación cultural Martin Ttipia propone la siguiente moción al Pleno del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz para su debate y aprobación:

1.- Dar el nombre de Martin Ttipia a una calle o plaza del Casco Viejo de Vitoria-Gasteiz, preferiblemente en el entorno de Villa Suso.

Gorka Urtaran
Portavoz G. EAJ-PNV

Patxi Lazcoz Baigorri
Portavoz PSE-EE

Kike Fernandez de Pinedo
Portavoz BILDU